

## Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2012ko urtarrilaren 26an egindako tailerraren akta



## Helburuak eta tailerlean parte hartu dutenak

Aurten Legazpiko Agenda 21eko Foroaren 11. urteari ekingo diogu!

Gogoz eta indarrez beterik, eta gaur hemen bildu diren ia 20 pertsonen kemenarekin, elkarlaneko urte berriari eman diogu hasiera. Saio informatiboa izan da baina ezinbestekoa 2012an taldeak zer egingo duen planifikatzeko.

Laburbilduz, tailerraren ordu eta erdia 4 zatitan bereizi da:

1. Berrieekin edo albisteekin hasi gara.
2. Segidan, aurtengo lan egutegia aurkeztu digute eta 2012an aztertuko diren gaiak azaldu dizkigute.
3. Hirugarren puntuan, Kepa Urzelai alkateak eta Inma Hernandez teknikariak modu laburrean eta argian, **udal aurrekontuaren** datu nagusiak eman dituzte (**datu orokorrak eta** Agenda 21eko eta Garapen Iraunkorreko **sailekoak**).
4. Eta bukatzeko, tak21 sistema erabilia Legazpi atera duen emaitza ezagutu dugu. Tak21 Ihebek (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen kudeaketarako sozietate publikoa) martxan jarri duen EAEko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko sistema berria da.

Eta guzti horretan, nola ez, taldea izan da protagonista: Legazpiko bizilagunak, egunez egun, lanerako eta parte hartzeko topagune honi zentzua ematen diotenak. **Eskerrik asko beste behin!!!**

Javier Iraeta (concejal) • José Luis Cid • Floren Gutiérrez • Joxan Auzmendi (Ingurugela de Legazpi) • Eugenio Gil (Korosti Zikloturistak) • Jose Ignacio Gil • Manuel Fernández (Nagusilan) • Iñaki Mauleon (Domingo Agirre Ikastetxea) • Mailo Pinillos (Ilinti Elkarte) • Rafael Gómez (Buskabaso) • Arantza Lobo (Domingo Agirre Ikastetxeko Guraso Elkarte) • Juan Carlos Agirre • M<sup>a</sup> Ángeles Prieto • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Igor Urrate (concejal) • Kepa Urzelai (Alcalde de Legazpi) • Inma Hernández (técnica de Agenda 21) • Iciar y Zorione (equipo de dinamización de Prometea, SC).

## Banan-banan, tailerrean aztertutako gaiak

Labur-labur, tailerrean aztertu ditugun gai bakoitzaren datu nagusiak azpimarratuko ditugu.

### 1. "Berriak"

Inma Hernandez teknikariak bi ohar eman dizkigu:

- **Ecovidrio kanpaina**, otsailaren 10ean, ostiralean, Legazpiko Euskal Herria plazan goizeko 9:30etik 12:30era.



Sasietako mankomunitateak bultzatutako kanpaina da. Helburua: edukiontzietan jasotako beiraren kantitatea eta kalitatea handitzea.

Horretarako, edukiontzian bota behar denari eta bota behar ez denari buruz dauden zalantzak argituko dira, beira birziklatzeko prozesua azalduko da,... eta birziklatutako beira aleekin lepokoak egiteko aukera eskainiko da.

- **Elikadura arduratsuaren gaineko hitzaldiak**

Legazpiko Ingurugelako Joxan Auzmendik zehaztu digu gonbidapena.

Eskola Agenda 21eko programaren barruan, aurten eskualdeko ikastetxeek gai hori lantzen ari dira: elikadura arduratsua. Testuinguru horretan, gaiarekin zerikusia duten bi hitzaldi antolatu dira eta hitzaldi horietan interesa duen edozeinek har dezake parte. Hauek dira hitzaldiak:

- **Otsailaren 1ean**, asteazkena, arratsaldeko 18:15ean, Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean: "**Elikagai ekologikoen ekoizpena**" hitzaldia. Hizlaria: Jesus Calvillo, Itsasmendikoi-Fraisoroko irakaslea eta Gaztenekeko Gipuzkoako koordinatzailea).
- **Otsailaren 15ean**, asteazkena, arratsaldeko 18:15ean, Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean: "**Elikagai ekologikoen kontsumoa**" hitzaldia. Hizlariak: Egoitz Garro (aholkularia makrobiotika gaietan eta irakaslea) eta Jesus Calvillo (Itsasmendikoi-Fraisoroko irakaslea eta Gaztenekeko Gipuzkoako koordinatzailea).

## 2. 2012ko lan egutegia eta Agenda 21eko Foroan aztertuko diren gaiak

Lehenbizi, taldearekin adostu dugu 2012. urte honetan Legazpiko Agenda 21eko Foroak egingo dituen bileren egutegia. Akta honi erantsita doakio egutegia.

Inma Hernandez teknikariak esan duenez, aurten zaila izango da bilera bakoitzean aztertuko dugun gaia urte hasieran zehaztea. Horregatik, 2012an Udalarentzako eta Garapen Iraunkorra eta Agenda 21eko sailarentzako garrantzitsuak izango diren gaiak edo proiektuak azaltzea erabaki dugu. Seguru gaude Foroak izango duela zer landu eta zer eman. Hauek dira gai edo proiektu horiek:

### 2012an Agenda 21erako lehentasuna izango duten gaiak eta proiektuak:

- **Hiri-hondakin solidoak eta haien kudeatzea.**  
2012rako gai nagusi bat aurrekusi dugu. Gai hori garrantzitsua da eta, horrezaz gain, lotura du bestelako proiektu garrantzitsuekin.  
Zentzu horretan, Igor Urrate zinegotziak gobernu taldearen borondatea eta jarrera adierazi digu argi eta garbi:
  - Gobernu taldeak Legazpin "zero zabor" helburua lortzea ahalbidetuko duen hondakinen gaikako bilketa sistema egokiena martxan jartzeko konpromisoa hartu du. Gaur egun, "atez ateko" sistema dirudi egokiena eta, beraz, honako eskaria egin diote Sasietako mankomunitateari: azterketa bat egin dezala, non Legazpin sistema hori erabiltzeak ekarriko dituen kostuak, sortuko diren lanpostuak,... zehaztuko diren.
  - Azterketa hori, gutxi gorabehera, ekainerako egongo da prest eta Udalaren asmoa informazio guztia, poliki-poliki, herritarrei ematen joatea da. Informazio horrekin Legazpiko bizilagunek "atez ateko" sistema ezagutzen joango dira eta beste sistemekin alderatu ahal izango dute. Beraz, gai hori Agenda 21eko Foroarekin landuko da baina areago ere joango da eta herritar guztiengana iritsi nahi dugu.
- **Natura ondarea.**  
2011ko proiektua da. Aurten, Aranzadi elkarteak natura ondareari buruz egin duen azterketatik ondorioztatu diren sentsibilizazio-ekintzetako bat lantzea da helburua baina aurrekontuetan egokitzapenak egin direnez, ikusiko dugu noraino iritsiko garen.
- **Akordioak elkarrekin aztura arduratsuak sustatzeko.**  
2011rako planifikatu genuen proiektua da baina aurten egiteko utzi genuen. Helburua udalerriko elkarte eta taldeekin lan egitea da eta dagoeneko barneratuta ditugun hainbat aztura aldatzeko eta hobetzeko proposamenak egin: ur-kontsumoari dagokionez, energia, beste baliabideak, hondakinak kudeatzean,... Iraunkortasuna lortzea ahalbidetuko dizkigun jarraibide arduratsuak hartu beharrean gaude.
- **Kontsumo eta ekoizpen arduratsua.**  
"Kutxa" honetan aurten bultzatu nahi diren hainbat ekimen daude: Bertako produktuak kontsumituko dituen taldea sortzea (eta horren aurretik ezinbestekoa izango da bere produktuak eskaini nahi dituen ekoizle bat aurkitzea); baratz ekologikoaren gainean prestakuntza ikastaroak antolatzea; eta kontsumoarekin eta hondakinekin lotuta, arraina erostean plastikozko poltsen erabilera murrizteko kanpaina martxan jartzea.

## Gainera, Legazpiko Udalak martxan ditu bestelako proiektu garrantzitsuak eta horiek aztertzen ari da:

- **Herri-barruko autobusa.**  
Horrela, gaiaren bilakaerak esango digu alderdiren bat Foroarekin aztertu beharko den edo ez.
- **“Baietz txukun mantendu” kanpaina.**
- **Energia arloan egingo diren ekintzak,** kontsumoa murrizteko eta eraginkortasuna areagotzeko.

Nola baloratzen ditu taldeak proposatutako egutegia eta gaiak?



- Abenduko data aldatu egin da egutegian eta ondoren onartu egin du taldeak (Eranskinean jaso da behin betiko egutegia).
- Urtean zehar aztertuko diren gaiak dagokienez, hondakinen gaiak hainbat ekarpen sorrarazi ditu:
  - Joxan Auzmendik Azpeitian egingo dutenaren berri eman digu: laster, debate bat egingo dute hondakinak eta haiek kudeatzeko sortzen duen kezka buruz eta, bertan, ikuspegi eta alternatiba desberdinak aurkeztuko dira: Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamena, “Zabor zero” taldearen proposamena eta Itsasondon garatu den erdiko irtenbidea.  
  
Azkenean, guztiok hondakinak kudeatzeko sistema bakoitzaren abantailak eta desabantailak ezagutzea da helburua: bilketaren portzentajeak, kostua, sortutako lanpostuak,....
  - Manuel Fernandezek gauza garrantzitsua azpimarratu du: Gaikako bilketaren mailak areagotu behar dira baina hondakinen sorrera murriztean dago gakoa. Taldea bat dator eta Foro honetan landu beharreko erronka dela uste du.
  - Hondakinen gaineko debatea eta hausnarketa ezin da Foroan geratu eta Legazpiko herritar guztiengana iritsi behar da.
- Eta oso ondo baloratu du taldeak lehen sektorea laguntzeko proposatu diren ekimenak, gaur egun gainbehera baitoa sektorea eta funtsezkoa da etorkizunerako.

## 3. Udal aurrekontu orokorra eta Garapen Iraunkorra eta Agenda 21eko sailaren aurrekontua


Puntu honetan Kepa Urzelai alkateak eta Inma Hernandez teknikariak modu argian, errazean eta ulergarrian eman digute oinarritzko informazioa.

Laburtuz:

## Legazpiko udal aurrekontua, datu nagusiak:


- Hauek dira aurrekontuak egitean lehentasuna izan dituzten irizpideak:
  - Euskararen normalizazioa
  - Zeharkako gaiak: Berdintasuna, immigrazioa, herritarren parte hartzea, ...
  - Gizarte Zerbitzuen partida mantentzea
  - Mugikortasuna: Herri barruko autobusa eta bidegorria
  - Zorpetzea kontrolatzea
- Irizpide horiek aintzat hartuta, udal aurrekontu orokorra hauxe da: 9.030.545,63 €.
- Udalaren zorpetze-maila, gutxi gorabehera, % 3,5ean dago (legez gehienez onartutako % 25eko mailarekiko).
- Diru-sarrerak nondik datozen:

### INGRESOS




- Partidaka, gastuak zertara bideratzen diren:

### GASTOS



## Legazpiko udal aurrekontua, datu nagusiak:

- Aurreko aurrekontuarekiko (2010ekoa, 2011koa aurrekoaren luzapena izan delako) gastuaren banaketaren bilakaera sailka:



- Inbertsioetan, Udalak ondoko jarduketak lehenetsi ditu:
  - Kiroldegira eta industrialdera joango den bidegorria
  - Arrapala Urtatza 9an
  - Asfaltatze-lanak
  - 4. Guriditegi auzoa
  - Arantzazu auzoko espaloiak
  - Ikastetxeak
  - Eraikin publikoak eta gazteentzako hornikuntzak
  - Udal kanposantua
  - Irisgarritasuna
  - Programa informatikoa

Udal aurrekontua azaldu ondoren, Inma Hernandez teknikariak bere sailekoa adierazi digu. Esaldi batean labur daiteke: **“diru gutxi izan arren, gauza asko nola egin daitezkeen”**. Oraintxe ikusiko dugu!

## Garapen Iraunkorra eta Agenda 21eko sailaren aurrekontua, datu nagusiak:

- Departamentuak 2012an izango duen aurrekontua **30.600,00 €** ingurukoa izango da; diru-kopuru horri udal teknikariaren soldata gehitu behar zaio.
- Gainera, kontu bat azpimarratu behar dugu: Departamentuak, 2007-2011 epealdian, **476.000,00 € eskuratu ditu diru-laguntzetatik**. Diru hori burutu diren hainbat proiektutan (sentsibilizazioa, komunikazioa, parte hartzea,...) eta beste departamentutako inbertsio proiektuetan (bidegorria, kaleak oinezkoentzako egokitzea,...) erabili da.  
Horrek garbi adierazten du, Foro honetan egindako lanak eta hartu diren erabakiek azkeneko urteotan eragin zuzena izan dutela udal gastuak gauzatzean.

PRESUPUESTO 2012
<b>GASTOS DIVERSOS DE AGENDA 21</b>
Actividades comarcales de sensibilización
Servicio web Compartir coche
Erreka Eguna
Aste Berdea
Semana de la Movilidad Sostenible
<b>SERVICIOS DE ASESORAMIENTO</b>
Agenda 21 Escolar (2011-2012)
Asistencia técnica participación
Asistencia técnica Ekoscan
Auditpría Ekoscan
Varios (Gida, buzoneos...)
<b>SUBVENCIONES</b>
Proyecto Infancia y Medioambiente

Eta zenbakiak mahai gainean ditugula, gaurko aztergaietako azkenera iritsi gara.

## 4. Legazpiko Agenda 21aren kalitatea, Ihoberen tak21 sistemaren arabera

Modu errazean, Inmak **tak21** aurkeztu digu, Ihobek (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen kudeaketarako sozietate publikoa) martxan jarri duen **Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko sistema berria eta aitzindaria**.

Hona hemen datu nagusiak:

- Tak21aren lehenengo edizio honetan, eta parte hartze baldintzak betetze-mailaren arabera, 47 euskal udalerrik hartu dute parte, Udalsarea (iraunkortasunaren aldeko euskal udalerrien sarea) osatzen duten ia 200 udalerritatik. Legazpi izan da horietako bat.
- Udalerrri bakoitzak galdera-multzo bat erantzun du eta galdera horiekin 200 adierazle baino gehiago kalkulatu dira aplikazio informatiko bati esker. Adierazleen emaitzaren azterketak Tokiko Agenda 21aren kalitate globala zehazten du.



Eta goazen jakin nahi dugunera.... **Zein izan da tak21 horretan Legazpik jaso duen emaitza?**

- Momentuz, hauxe da Ihobek Legazpiko Udalari jakinarazi diona:
  - Gure Udalak jaso duen puntuazioa.
  - Parte hartu duten 47 udalerrien bataz besteko puntuazioa.Hau da, momentuz ez dakigu gure Tokiko Agenda 21aren postua zein den Euskadiko gainerako Agendekiko.
- Eta **gure Agenda 21aren puntuazioa, oso ona da!** Legazpiko Agenda 21aren kalitate globalak 8,11 puntu jaso ditu, sisteman parte hartu duten beste udalerrien 5,50 bataz bestekoaren aurrean.  
Inmak azpimarratu duenez, agente asko eta askoren elkar lanari esker lortu den puntuazioa da. Hor dago Foroa, udal langileak, zinegotziak, alkatetza, udalaz gaindiko erakundeak, legazpiarrik,....
- Gainera, Tokiko Agenda 21 bakoitza 5 ikuspegi desberdinetatik aztertzen duen tak21 sistemak Legazpik alderdi bakoitzean dituen **indarguneak** azpimarratu ditu:
  - Agenda 21arekin Udalak duen konpromiso sendo eta tinkoa eta ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko ekintzak biltzen dituen Ekintza-plana izatea.
  - Udal barruko kudeaketan iraunkortasun-irizpideak eta Agenda 21 zabaltzeko eta barneratzeko egin den lana (iraunkortasun batzordearekin, komunikazioa,....).
  - Tokiko Agenda 21eko Ekintza-planaren ezarrera-maila ona eta egin den jarraipen egokia.
  - Herritarrek parte har dezaten egin den ibilbidea, horren ikur nagusia Foro hau izanik.Eta, era berean, hobetzeko gaiak identifikatzen laguntzen du, hala nola, energia gaietan ekintzak indartu beharra, udalerraren errealitate sozioekonomikoa,....

Azken finean, tak21 sistemak gure Agenda 21aren kalitate globalaren gaineko informazio erabilgarria ematen digu, gure indarguneak azaltzen dizkigu, eta hobetu beharreko alderdiak erakusten dizkigu.... Gainera, beste udalerriekin alderatuta, guretzat interesgarriak izan daitezkeen esperientziak identifika ditzakegu, esplora daitezkeen bide berriak,....

## Atsegin dugu erreminta!

Eta testuinguruaz baliatuta, parte hartzearen eremuan zentratuta, azkeneko galdera hau bota diogu taldeari:

**2011ko urteko ebaluazioa eginez, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren funtzionamenduari dagokionez, zer hobetuko zenukete? (pertsone bakoitzak, gauza 1!)**



Tailerraren denbora ia agortuta, taldeak eskaini dituen ideiak bildu ditugu.



## Iaz ikasitakotik, eta 2012ra begira, zer hobetu dezakegu Legazpiko Agenda 21eko Foroaren funtzionamenduan?

- Foroan jende gaztearen (20-50 urte bitartekoak) parte hartze handiagoa lortu behar dugu, taldea Legazpiko populazio-piramidearen erakusgarria izan dadin.
  - **Ideia bat!** Foroaren bilera egin aurretik, "betikoei" ohiko deialdia bidaltzeaz gain, zergatik ez diegu deialdia bidaltzen erroldatik ausaz aukeratutako zenbait herritarri? Agian norbait gerturatzea lortuko dugu!
- Foroa zer den hobeto komunikatu behar dugu: zer egiten dugun, zertarako den, zer eman dezakegun legazpiarrok,... Gehiago komunikatu behar dugu!
  - **Ideia bat!** Zergatik ez dugu udaletxeko balkoian bandera berde bat zintzilikatzen Foroa egingo den astean?
- Kalera eraman behar dugu Foroa, agerian jarri behar dugu eta herritarrengana hurbildu; horrekin ere pertsona gehiago erakar ditzakegu.
- Taldearen ordezkatzeari gehiago landu behar dugu: adina, generoa, sentsibilitate eta ikuspegi desberdinak,... Begirada kritikoak eta desberdinak falta dira eta horiek erakarri behar ditugu, gu hemen bertan gozo gelditu gabe. Eta kualifikatuak badira, askoz hobe!
  - Adibidez, komenigarria izango litzateke auzoetako (Brinkola, Telleriarte,...) bizilagunekin kontatzea, batik bat haiengandik gertu dauden gaiak aztertzeke: lehen sektorea balioestea, baserriak,....
- Zehatzago landu behar dugu gutxitzearen edo behera joatearen gaia (zer den, zer ekarriko duen,...)
- Oso inportantea da Udalak eta herriko beste erakundek antolatzen dituzten ekitaldi desberdinak koordinatzea eta planifikatzea, Foroko tailerrak ez daitezen beste hitzordu garrantzitsuekin aldi berean gertatu.
  - Adibide bat: Gaur bertan, ordu berdinerako 3 gauza zeuden antolatuta.....

## Eta hobetzeaz gain, zer ikasi dugu? Zer baloratzen dugu ondo?

- Foroan euskarari pisu handiagoa emateko egin dugun esfortzua. Poliki-poliki, eta guztion jarrerari eta borondateari esker, oreka handiagoa lortzen ari gara bi hizkuntzen artean eta, gainera, eroso sentitzen gara eta "elkar ulertzea" bermatzen dugu; eta hori da inportanteena,....
- Forora gatozenon jarrera. Gogoia agerian dago; asmo ona izatea identifikatzen gaituen kontua da eta pertsona gehiago erakartzetik haratago, jarrera hori mantenduko dela bermatu behar dugu.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eta eztabaidatzeko gai guztiek merezi duten denborarik gabe, barneratu egin ditugu gure subkontzientean forma hartzen joan daitezen.

### 5. Amaiera eta agurra!

Presakako agurra izan da baina Forotik "tira" egiten duen taldearen konplizitatearekin. Gogoz eta indarrez sentitzen dugu Foroa eta forma eta kolorea emango diogu 2012 honetan.... Horrekin geratzen gara, bada!

**Mila mila esker guztioi eta hurrengo saiora arte, gozatu neguaz!!!**

## 1. Eranskina. Agenda 21eko Foroaren tailerren egutegia: 2012.

URTARRILA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

2011ko ebaluazioa-  
2012ko  
planifikazioa eta  
hainbat gai

OTSAILA						
L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29				

MARTXOA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

APIRILA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

5.1. ESKOLA AGENDA  
21. Foroa herriko  
ikasleekin: 2011-2012  
ikasturteko gaia:  
elikadura arduratsua.

MAIATZA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

EKAINA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

UZTAILA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

ABUZTUA						
L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

SEPTIEMBRE-IRAILA						
L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

URRIA						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

AZAROA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

ABENDUA						
L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						